

NAFARROA OINEZ

TAFALLA | Erdian Erein

GARA GEHIGARRIA



2022/10/16

golem

DENOK ZINEMARA!

www.golem.es



IRUÑA | Golem Baiona - Baiona Etorbidea, 52 (6 areto)

Golem Yamaguchi - Yamaguchi Enparantza (5 areto)

Golem La Morea - La Morea Komertzial Gunea (12 areto)

BILBO | Golem Alhóndiga - Arrikibar Enparantza, 4 (8 areto)

DENOK

NAFARROA
DINEZ 22

TAFALLARA!



Nafarroako Erdialdean euskararen hazia ereiten

Laugarren goz antolatu du Tafallako Garces de los Fayos ikastolak Nafarroa Oinez ikastolen aldeko jai erraldoi eta estimatua.

Oraingo honetan Erdian Erein lelopean ospatuko dute, eta sorpresa ugari beteriko ekitaldia izango dela ziurtatu dute antolatzaileek.

Mikel AGINAGALDE | TAFALLA

Nafarroa Oinez festaren moldea eta haren nondik norakoak denboran zehar aldatuz joan badira ere, azken helburuak antzekoak izan dira urteak pasa ahala. Alde batetik, jaia bera Garces de los Fayos Ikastola eta Nafarroako Erdialdeko jendearen arteko topaketa bideratzeko aukera paregabea da; modu horretan euskara eta euskal kultura ezagutzeko parada ematen baitu, baita denbora luzean errotu den proiektuaren izaera irekia plazaratzeko ere.

Hala ere, ikastolako arduradunek, oraindik ere, ezinbesteko ikusten dute ikasleen beharrak eta euren garatu beharreko trebetasunak XXI. mendeko testuingurura egokitzea. Izan ere, egungo gizartea zentzu askotan eraldatzen doan heinean, ikastolak ere erantzun eta tresna berriak eskaini behar dizkie ikasle- en behar horiei.

Horregatik, azken urteetan ikastolaren hezkuntza proiektua berritu egin dute, eta emaitzak ikusten hasiak dira jada. Dena den, espazio berriak behar omen ditu Garces de los Fayos ikastolak, aipatu proiektu hori modu egokian gauzatu ahal izateko. Zentzu horretan, aipatzekoa da Nafarroa Oinez



Laugarren aldia da Tafallan Nafarroa Oinez antolatzen dela; azkena, 2011n izan zen. Iñigo URIZ | FOKU

festatik aterako dituzten irabazkiak helburu horretara bideratuko dituztela.

Berrogeita hamar urte luzeko historia bete du oraintsu ikastolak. Mende erdia ikastetxe ireki, integratzaile eta berritzailea ereiten eta lantzen jarraitzeko asmoarekin. Ikasle euskaldunak, arduratsuak, kritikoak eta auto-

ASTEBURU OSOA

Familiengan pentsatuz, aurten lehenbiziko aldiz jarduera egitarau erakargarria antolatu dute larunbaterako, Oinez jaia asteburu osora luzatuz.

nomoak hezi nahi ditu Gerces de los Fayos ikastolak. Gaurko Nafarroa Oinez jaialdia ere izaera eta helburu horiek plazaratzeko eguna izango da.

Ildo horretatik, aste honetan bertan Iruñean egindako Nafarroa Oinez festaren aurkezpen- prentsurrekoan festaren arduradunek aurtengo leloa, haren

esanahia eta haren helburua nabarmendu nahi izan dituzte. Horren bidez, hain zuzen ere, Nafarroako Erdialdean euskara ereiten jarraitzera gonbidatu nahi izan dituzte herritarrak.

Ibilbidea eta guneak

Betiko legez, ekitaldi, ikuskizun eta sorpresa anitz izango dira

gurea, denona

euskara

de todos y todas

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 AGENDA 2030

 euskarabidea

igande honetan Tafallan prestatu duten egitarauan. Iaz Lizarran «formatu txikiko jaia» ospatu ondoren, aurten Tafallan ohiko ibilbidea eta gunek prestatu dituzte.

Sarbidea errazteko, hiri-zirkuitu bat diseinatu dute, Kondearen Parkea, Ereta edo Kirol Hiria bezalako leku ezagunetatik igarotzen dena. Guztira, ia 2 km eta lau eremu ditu, Sustrai, Zuhaitz, Hazi eta Kimu izenekin bataiatuak, Erdian Erein aurtengo leloaren ildotik. Gainera, ibilbidea (4. eremua izan ezik) mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta dago.

Gazteei zuzendutako 4. gunean, kontzertuez gain, bestelako aukerak izan ditzaten saiatu dira antolatzaileak (jolas kooperatiboak, graffiti tailerra, kukaña...), eta jarduera ugari programatu dira etxeko txikiengan pentsatuta, batez ere 1. eta 2. guneean.

Hala ere, Oinez jaialdian musikak duen garrantziaz jabetuta, adin guztietara egokitu dira emanaldiak, besteak beste, Patxi eta Konpania, The Triketeens, Golazen, Xutik, La Mala Pékora, DJ Bull, Txutxin Ibáñez & Garibaldi Band, Ache pa ti, Julivert, Skabidean, Rotten XIII, Trikidantz eta abar.

App eta Bizum

Berrikuntza gisa, app bat sortu da, Androiderako eta IOSerako deskarga daitekeena. Bertan, Oinez-eko informazio praktikoaz gain, jaiarekin lotutako alderdiei buruzko jakinarazpenak bidaliko dira denbora errealean (zirkulazio-arazoak, azken orduko berriak, etab.).

Era berean, Oinezi dohaintzak egiteko aukera izango da Bizumen bidez 03259 identifikatzailea erabiliz, prozesu hori ez baitago inongo telefonozenbakirekin lotuta.

HIRI-ZIRKUITUA

Sarbidea errazteko, hiri-zirkuitu bat diseinatu dute, Kondearen Parkea, Ereta edo Kirol Hiria bezalako leku ezagunetatik igarotzen dena. Guztira, ia 2 km eta lau eremu ditu, Sustrai, Zuhaitz, Hazi eta Kimu izenekin bataiatuak, Erdian Erein aurtengo leloaren ildotik.

ADIN GUZTIETARA

Oinez jaialdian musikak duen garrantziaz jabetuta, adin guztietara egokitu dira emanaldiak, besteak beste, Patxi eta Konpania, The Triketeens, Golazen, Xutik, La Mala Pékora, DJ Bull, Txutxin Ibáñez & Garibaldi Band, Ache pa ti, Julivert, Skabidean, Rotten XIII, Trikidantz eta abar.



Tafallako ikastolak 50+2 urteurrena ospatu du aurten.

GARA

223 FAMILIAK, 35 LANGILEK ETA 318 IKASLEK OSATZEN DUTEN IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBA

Eskualdeko erreferente bilakatu da Garces de los Fayos ikastola ikasleen, eta oro har, gizartearen euskalduntze prozesu luze bezain malkartsuan. Pasa den mendeko 1970. urtean sortu zen ikastola, eta garai hartan zortzi familia soilik izan ziren euskarazko hezkuntzaren aldeko apustua egin zutenak.

Orduz gero, eta auzolanean egindako lan eskergari esker, ikastolaren proiektuak aurrera egitea lortu zuen, harik eta 1987. urtean alegaltasun egoeratik irten zen arte. Ikasturte hartan hamar ikasleko lehen promozioa atera zen.

Esan bezala, hastapeneko urte haiek oztopoz beteak izan ziren, baina irmotasunez eta kemenez aurrera egitea lortu zuten oztopo administratibo eta bestelakoak uneoro gaindituz. Beste efemeride garrantzitsu bat 1994ean heldu zen. Urte hartan kale mobilizazio eta protesta ugariaren ondoren, Bigarren Hezkuntzako etapa osoa emateko baimena lortu zen, ikasleek hamasei urte bete arte, alegia.

2011n espazio behar berriak sortu zitzaizkion ikastolari. Urte hartan hirugarren

Nafarroa Oinez antolatu zuen Garces de los Fayos ikastolak eta handik ateratako etekinak baliatuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etaparako eraikin berria egin zene.

Denbora guzti horretan Garces de los Fayos ikastolak Nafarroa Erdialdeko ehunka ume eta gazte euskaldundu ditu murgiltze eredu linguistikoaren bidez, hezkuntza-proiektu sendo, berritzaile eta kalitatezkoa eskainiz.

Gaur egun, Garcés de los Fayos Ikastola gurasoen irakaskuntza-kooperatiba da, Nafarroako Ikastolen Elkartearen eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen baitan kokatzen dena. Orotara, 223 familia, 35 langile eta 318 ikasle osaturik dago. Azken hauek Nafarroako Erdialdeko hainbat tokitatik datoz; besteak beste, Artaxoatik, Artariaindik, Barasoaindik, Beiretik, Garinoaindik, Iratxetatik, Erriberritik eta Tafallatik bertatik, noski.

Gaur egun hiru hezkuntza etapatan egiten dute lan ikastolan, eta ondo finkaturiko helburu batekin: ikasle euskaldunak, kritikoak, eleanitzak, konpetenteak, autonomoak eta adeitsuak izaten laguntzea.

Senttix



GORRICH 
SISTEMAS DE DESCANSO

www.gorricho.com

*Atsedeen osasuntsu
baterako bidea.*

Yanguas y Miranda, 19 · 948 24 79 63 · Iruñea

Sancho el Fuerte, 32 · 948 17 10 24 · Iruñea

Avda. Villava, 2 · 948 12 46 63 · Iruñea

Pol. Ind. Mutilva C/A. 17 · 948 29 09 52 · Mutilva Baja



ELKARRIZKETA

Paula ARREGI

TAFALLAKO GARCES DE LOS FAYOS IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Festa handiaren atarian, urduritasun puntu batekin baina gogotsu hartu gaitu Paula Arregi, Tafallako Garcés de los Fayos ikastolako zuzendariak. Festaren nondik norakoak argitzeaz gainera, ikastolaren etorkizuneko helburu eta erronka nagusiei buruz, eta beste hainbat konturen inguruan mintzatu zaigu. Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea ere aldarrikatu nahi izan du.

«Euskara eta Ikastola bizirik gaude, eta ereiten jarraituko dugu»



Inigo URIZ | FOKU

tzen dutenak, hain zuzen ere. Behar horiek guztiak asetzea ezinbestekoa da.

Azkenik, ezin dugu ahaztu iragan 2011. urtean ospatu zen Nafarroa Oinez festari esker lortu genuena; alegia, DBHko egoitza berria eraikitzea. Horrek zorrak ekarri zituen guretzat eta aurre egin behar diegu; beraz, horretarako ere erabiliko da festa honetan lortutako etekina. Izab ere, alor ekonomikoa ere oso garrantzitsua da eta aintzat hartzekoa gu guztiontzat.

Nafarroa Oinez bezalako festa bat prestatzeak ahalegin kolektibo handia eskatzen du. Zein izan da ikastola-komunitatea osatzen duzuenon inplikazio maila antolakuntzari dagokionez?

Hasiera-hasieratik inplikazio maila altua egon da komunitate osoan; ez oraingo familiekin bakarrik, belaunaldi guztietako familiak, ikasleak eta langileak haien laguntza eskaintzen aritu dira uneoro, eta hori izaten ari da festa honen alderdirik politenetako bat. Ikastola familia erraldoia gara eta auzolan handienaren aurrean, gure ondora etorri dira, denon artean egun eta urte bikaina ospatzeko asmoz. Egia da egun eta une batzuk besteak baino hobeak izan direla, baina aurrera egiten jakin izan dugu adoretso. Eskerrak eman nahi nituzke hemendik. Izan ere, zoragarria da komunitate horren kide izatea.

Esan bezala, festa antolatzea bera erronka itzela da. Zein izan da ekitaldiaren prestaketa lanetan izan duzuen zailtasunik aipagarriena?

Egia esateko, zailtasunik handiena eta nabarmena izan da, zalantzarik gabe, egunean bertan egin beharreko muntaiak eta desmuntaiak kudeatzea. Jai erraldoi horren prestaketa auzolanaren bidez egin dugu, eta sarritan zaila da hori guztia kudeatzea; alde batetik, jende asko

M.A. | TAFALLA

Lizarran iaz «formatu txikian» ospatu ondoren, bueltan da berriro ere Nafarroa Oinez ikastolen aldeko jaia, ohiko ibilbide eta gune guztiekin. Nola bizi duzue itzulerako unea? Momentu honetan urduritasunez, baina indarrez eta gogoz beteta gaude. Hurbil ikusten dugu hitzordua eta nahiz eta lana egun hauetan bikoiztu egin den, irrikatan gaude denok batera Nafarroa Oinez jaia ospatzeko. Egun handia izatea espero dugu denok.

Zeintzuk dira aurtengo festaren helburu nagusiak?

Oro har, hiru helburu nagusi ditugu Garcés de los Fayos ikastolan. Alde batetik, euskara eta euskal kultura Tafallan eta zonaldean zabaltzea eta indartzea. Izan ere, 52 urte luze daramatzagu lan horretan eta bide horretatik jarraitu behar dugu.

Beste alde batetik, gure ikastolak garatu dituen proiektu pedagogiko berritzaileek gure eraikinetan aldaketa sakonak egitea eskatzen dute. Zehatzago esanda: espazio berriak eta irekiak behar ditugu, elkarren arteko harremanak, eztabaidak eta proiektuak garatzea ahalbide-

Sagardiko S.L.U.
Edariak
T. 948 592 027
f. 948 592 434
C/ Balengoberri Pabellones Iturria 1. Oronoz Mu 31700 Baztan


GENERALI
AGENTZIA MIKEL SENOSIAIN
Mayor, 11
TAFALLA
t 948 70 05 93 / 626 610 598

URBASA ETA ANDIAKO
PARKE NATURALEN
ARTEAN

Yoga eskola · Haur parkea
Supermerkatua
Igerileku naturalizatu
Taberna/Jatetxea
© 848 470 922 · www.campingarbizu.com



dagoelako, eta bestetik, definitu gabeko lan aso sortzen direlako momentu bakoitzean.

Dena prest, beraz, euskaltzaleei harrera beroa egiteko. Zeintzuk dira aurtengo festaren berezitasun nagusiak?

Berezitasun nagusi gisa aipa dezakegu Garces de los Fayos ikastolak antolatzen duen laugarren Oineza dela. Eta asteburu osoko jaia izanen dela. Larunbatean ekintza ezberdin eta ugariak antolatu ditugu, eta igandea izanen da egun nagusia, programa anitza familia eta lagun artean gozatzekoa. Aipatzekoa da, gainera, Tafalla eta zonaldeko herrietako elkarte eta artista ugariaren parte hartzea izango dugula ibilbidean zehar.

Adin guztietako pertsoneri zuzendutako egitaraua eskainiko duzue. Zein alderdiri eman nahi izan diozue garrantzia?

Gure ibilbideak bi kilometro inguru izanen ditu eta lau area edo gune egonen dira: Hazi, Sustrai, Kimu eta Zuhaitz izenekoak, gure "Erdian erein" leloarekin lotura zuzena duena. Erdialdean euskara ereiten jarraitza animatzen gaitu honek. Haziak landatu behar ditugu, sustraiak gure lurrera ongi eutsi eta kimu berriak ateratzen jarrai dezaten, etorkizuneko zuhaitz sendoak izan ditzagun.

Leloak dioen bezala, indarrak berriz batzeko ordua iritsi da. Gure Ikastolaren ibilbide luze honetan egon diren belaunaldi desberdinak topatzeko unea, eta belaunaldi berrien taupada



«Garces de los Fayos ikastolaren helburu nagusietako bat, euskara eta euskal kultura Tafallan eta zonaldean zabaltzea eta indartzea da. Izan ere, 52 urte luze daramatzagu lan horretan eta bide horretatik jarraitu behar dugu.»

entzuteko unea dela uste dugu. Asko da aurrekoek irakatsi dezaketena eta asko da egun hezten ari garen hurrek emango dutena. Euskara eta Ikastola bizirik gaude, eta gure herria eta zonaldea ereiten jarraituko dugu.

Oztopo handiak gainditu behar izan dituzue, baina aurrera egin duzue irmoki. Zeintzuk dira Nafarroako ikastolen etorkizuneko erronkak?

Nafarroako ikastolen erronkak ez dira asko aldatu, hauen sorreratik: Nafarroako gizarte euskaldunago eta hobeki hezitakoa lortzea, hain zuzen. Erronka hauek bizi dugun errealitate aldatokorretara egokitzea da gure egiteko nagusia. Gure ikasleak eta ikasle-ohiak euskararen eza-gutzatik honen erabilpen orokortura pasatzea (bizitzako eremu ezberdinetan, ez bakarrik akademikoan) eta hezkuntzaren alorrean, ezagutza zientifikoetan oinarrituta, honen berrikuntza; ikasleak konpente bilakatuz beraien esparru ezberdinetan: akademikoan, afektiboan edo eta sozialean, adibidez. Eta guzti hau gure izaera kooperatibo eta autogestionatua eta gure balio nagusienetan oinarrituta.

Euskararen erabilera ez da nahi genukeena bezain ona. Zeuek nola ikusten duzue euskararen egoera Tafallan?

Gure zonaldean zaila da euskaraz bizitzea, baina ikastolak lan ederra egin du 52 urte hauetan. Beraz, ezinbestekoa izan da normalizatze prozesuan. Bide luzea geratzen da, baina pozez eta ilusioz ekingo diogu erronka horri.

EGITARAUA

1 SUSTRAI

10:00 **ERRONKA** ①

10:30 **KAIKU** ELIKAGAIEI TAUPADA
IKUSKIZUNA (10:30, 11:15, 12:00)

12:45 **GAITAMARABRASS**

13:45 **HERRI KIROLAK**

14:45 **TXALAPARTARIAK**

15:15 **MIELOTXIN**

16:30 **PATXI ETA KONPANIA**

18:00 **LARRAIN DANTZA**
TAFALLAKO GAITEROAK

Egunean zehar

HERRI TXIKI MOTOR ZIRKUITOA

ESKALADA ARETOA (BULDER)

KONFETI JAIA

PUZGARRIAK

TXALAPARTA TAILERRA
HELDU ETA HAURRENTZAT

2 HAZI

10:00 **TAFALLAKO KORALAK, BANDA ETA DANTZARIAK**

11:00 **ERRONKA** ②

12:00 **KIKI MOKO ETA KOKO**
"BIZI BIZI ZIRKUA"

13:15 **TXUTXIN IBAÑEZ & GARIBALDI BAND**

14:30 **ACHE PA TI**

16:00 **JULIVERT**
CANÇONS POPULARS I DE TAVERNA

17:15 **DJ BULL**

Egunean zehar

MARGOKETA KOLEKTIBOIA

HAURREN HIRIA

ZORU MARGOKETA

EROSKI FUNDAZIOA HAUR JARDUERAK

LABORAL KUTXA HAUR JARDUERAK

INGURUMEN TAILERRA

EZKURTZO IPUINA ETA EREIN TAILERRA

3 ZUHAITZ

10:00 **IREKIERA EKITALDIA IKASTOLAN**

10:30 **TAFALLAKO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA**

11:00 **LUANA TA MAIALEN**

12:00 **ERRONKA** ③

13:00 **EITB Go!azen**

14:15 **THE TRIKITEENS**

15:45 **XUTIK**

17:00 **LA MALA PÉKORA**

Egunean zehar

TXAC PLANET PHOTOCALLA (12:00-14:00)

DIARIO DE NOTICIAS HAUR JARDUERAK

EUSKALTEL TXIRRINDULA PISTA

EITB HIRU3 KIDE PHOTOCALLA

4 KIMU

10:00 **XAPIRU TRIKITIXA TALDEA**

10:45 **NON NAHI**

11:45 **LA CUERDA FLOJA**

13:00 **ERRONKA** ④

14:00 **ERRONKA SARI BANAKETA**

14:30 **SKABIDEAN**

16:00 **ROTTEN XIII**

17:30 **TRIKIDANTZ**

Egunean zehar

GRAFITI TAILERRA

PUZGARRIAK

KUKAÑA

JOLAS KOOPERATIBOAK

NAFARROA OINEZ 2022

URRIAK 16 TAFALLA

NAFARROA OINEZ 2022
TAFALLA

IKASTOLA
GARCÉS DE LOS FAYOS
TAFALLA

ikastolenelkarte

erdiak erein

EGITARRAUA

NAFARROA OINEZ 2022
TAFALLA

SUSTRAI 1

ZUHAITZ 3

MIRANDA

ERIBERTI 4

IKURRAK:

- APARKALEKUA
- SARRERA
- TREN GELTOKIA
- INFORMAZIOA
- KOMUNAK
- OSASUN GUNEA
- EDOSKITZE GELA
- KOMUN EGOKITUA
- DIRU-TRUKA
- TXOSNA
- PAELLADA
- TALOAK
- KAFEA

IKASTOLA
GARCÉS DE LOS FAYOS
TAFALLA

ikastolenekartea

erdiak erein

EUSKARA ZURI DE IKA

EL EUSKERA TE ESTA LLAMANDO

ika

EUSKALDUNIKATE!
ikauskaltegiak.eus

ATARRABIA
948 332 660

ARTURO CAMPIÓN
948 222 246

BARAÑAIN
948 188 325



Nafarroa Oinez 2022 Kanta

ERDIAN EREIN



Entzun ditugu gurasoen zirrarez betetako ipuinak
ta euri berriak ziprirtindu du gure gogoan
Oinez edo hegaz egin genituen lehen irriak
Mila haize harrotuen aurka borrokan
Urjauzi bat basamortuan

Iragan ederrena da zuek egindako guztia
traben lurzoru gogorra laiekin irauliaz
97ko ume koxkor baten begiak
dir dirka ari dira oraingoan
zerbat oroitzapen kolkoan!

Erdian erein, heldu da indarrak berriz batzeko ordua
Erdian erein, gaurkoan belaunaldi berriaren taupada

Hamaikan hamaika ginen ta beste pauso bat aitzina
Izan nahi dugun guztia izango garelakoan
la konturatu gabe pasa zaigu mende erdia
ezkur batetik datorren enborra
argi baten bila loratuz doa

Erdian erein, heldu da indarrak berriz batzeko ordua
Erdian erein, gaurkoan belaunaldi berriaren taupada

Erdian erein
Erdian erein

LIZARRA KANPINA

"Hegan Oinez"
egin eta atseden hartzeko
leku bila zabilta?

Ez hobe, baizik ezberdina...
leku hori da Lizarra Kanpina!

Gora Nafarroa Oinez!
Lizarra Kanpina euskararen alde!

www.campinglizarra.com

**Bidaiatu
Konpainia
onean.**

AIZPURUA
AUTOBUSAK

Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es



Martxoan egindako bisitan, gonbidatuei ikastolaren historia laburra eta haren hezkuntza proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkieten. GARA

Hizkuntza txikien handitasuna

Txikiak Handi izeneko proiektuaren bitartez, mundu zabaleko hizkuntza txiki eta gutxituen aniztasuna eta handitasuna aldarrikatu nahi dute urtez urte Nafarroa ikastolek.



M.A. | TAFALLA

Nafarroa Oinez festaren baitan sortutako egitasmo iraunkor eta egonkorra dugu Txikiak Handi izeneko proiektua. Horren bidez, mundu zabaleko hizkuntza txiki eta gutxituen aniztasuna eta handitasuna aldarrikatu nahi dute, horiek babesteaz eta euren arteko zubiak sortzeaz gainera. Euskararen eta euskal kulturaren aldarrikapenetik abiatuta, hizkuntza guztiak errespetatuak izateko eskubidea lortu asmo dute egitasmo horren bitartez.

Aipatu proiektu hori Garabi de Elkartearekin elkarlanean eraman dute aurrera. Elkarte horrek euskara eta haren esperientzia oinarri izanik, hizkuntza gutxituen biziberritze-planak bultzatzen ditu, besteak beste, eta haren helburu nagusia da gure hizkuntzarekin martxan jarritako estrategia arrakastatsuak munduko beste herrialde batzuetara zabaltzea, betiere herrialde bakoitzeko errealitatera egokitu diren ekimenak bideratuz.

Aurtengo honetan Tafallako Garces de los Fayos ikastolak hartu du egitasmoa kudeatzearen ardura, eta Maputxe, Amazigh, Kiche, Quechua, Tutunaku, Nahuatl, Nasa, Guaraní, Qui-

chua, Maya yucateco eta Tseltal-a bezalako hizkuntzetako hogeit bat aktibistari egin diete harrera beroa Nafarroako herri horretako ikastolan. Egoitza bisitatu bitartean, gonbidatuei Ikastolaren historia laburra eta haren hezkuntza proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkiete, beste gauza askoren artean.

Premiazko egitasmoa

Ikastolako arduradunen esanetan, «ikastolarentzat ohore handia da horrelako bisita izatea, eta haiekin harremanak sortzeko aukera izatea ere bai. Izan ere, uneoro badugu zer ikasi eta zer irakatsi». Era berean, zera gaineratu dute: «Nafarroa Oinez ospakizuna aukera paregabea da munduan barna hedatzeko eta hizkuntza guztiari errespetua zor zaiela aldarrikatzeko».

Ildo horretatik, Garces de los Fayos ikastolako zuzendari Paula Arregik dio egitasmo hori oso esperientzia aberasgarria izaten ari dela, eta horren ildotik hizkuntza gutxituak babesten jarraitu beharra aldarrikatu nahi

HARRERA BEROA

Aurtengo honetan Tafallako Garces de los Fayos ikastolak hartu du egitasmoa kudeatzearen ardura, eta Maputxe, Amazigh, Kiche, Quechua, Tutunaku, Nahuatl, Nasa, Guaraní, Quichua, Maya yucateco eta Tseltal-a bezalako hizkuntzetako hogeit bat aktibistari egin diete harrera beroa Nafarroako herri horretako ikastolan.

MUNDU ZABALEKO HIZKUNTZA TXIKIEN ARTEAN ZUBIAK ERAIKIZ

Aretxabaletan egoitza nagusia duen Garabide Elkartea Gobernu Kanpoko Erakundea da, eta lankidetzaren harremanak modu berritzailean egiten ditu. Zehazkiago esanda, lankidetzaren esparruan, hizkuntza gutxiak biziberritzeko prozesuak bultzatzen ditu. Hain zuzen ere, hizkuntza komunitate gutxituetako eragileekin proiektuak hitzartu eta aurrera eramatea da Garabide elkartearen lana. Esaterako, Nafarroa Oinezek eta Garabide elkarteak elkarlanean sustatzen dute Txikiak Handi proiektua.

Euskararen inguruko esperientzia aintzat hartuta eta hartan oinarrituta jarduten du erakundeak. Urrats nabarmenak egin ditu eta beste herri askorentzat erreferente bilakatu da. Nolanahi ere, ez dago hizkuntza biziberritzeko antzeko esperientzia gehiegirik, ekimen zibilak sortuak eta azpiegitura-sare bat dutenak. Horregatik, euskara biziberritzeko prozesuan metatu den ezagutza altxorra da hizkuntza gutxi askorentzat, are gehiago hizkuntzak galtzeko prozesua inoiz baino biziagoa den garai hauetan.

Zentzu horretan, Garabide elkarteak zenbait helburu ditu finkatuak. Alde batetik, garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate gutxituekiko lankidetzaren bideratu nahi du. Bestalde, Hegoaldeko hizkuntza-komunitateekin lankidetzaren proiektuak garatzeko lanean dihardu, bereziki hezkuntzaren eremuan. Azkenik, Garabideren beste xedea da euskara eta euskal kultura sustatzen duten erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitateekin euren esperientzia partekatzea.

izan du: «Oso ekimen hunkigarria eta garrantzitsua da guretzat. Hizkuntzen normalizazioan lanean elkarrekin aritzea oso aberatsa da eta asko irakatsi diezaiogegu elkarri».

Bestalde, Arregik nabarmendu nahi izan du gisa horretako ekimenen garrantzia eta premia, munduko hizkuntza gutxituek merezi duten aitortza eta begirunea izan dezaten. «Gaur egun hizkuntzen normalizazioan lanean elkarrekin aritzea oso aberatsa da eta asko irakatsi diezaiogegu elkarri».

Azkenik, Arregik, itxaropenez, auzolanean eta elkarlanean jarraitzeko deia luzatu nahi izan die hizkuntza txikien alde lanean jarduten duten guztiei: «Ez dugu ahaztu behar hizkuntzak altxorra direla eta aniztasuna eskaintzen diotela munduari. Honek legaltasun osoa izan dezan indarrez aurrera jarraitu behar dugula adierazten digu. Izan ere, hizkuntza gutxituen arteko batasunak handi egiten gaitu».

Txikiak Handi manifestua

Era berean, aipatu beharra dago azken asteetan Txikiak Handi manifestua sinatzeko kanpaina martxan jarri dela. Etxarri Arantzeko Andra Mari Ikastola Europako hizkuntza txikien enbaxadore bihurtu zen 2009an Txikiak handi manifestua sortu zuenean. Modu horretan herri txikien arteko sarea sortzen hasi zen, txikien arteko loturak indarra ematen duelako.

Sinadura bilketaren bidez hizkuntza gutxituen normalizazioaren aldeko babes bultzatzeko pertsona zein erakunde atxikimendua bilatu nahi da, hizkuntzen babes, legaltasuna eta gizarte alor orotan erabiltzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

Ekimenaren bultzatzaileek argitu nahi izan dute, azkenik, atxikipena ematea beharrezkoa izateaz gainera, oso erraza dela: Soil-soilik izen-deiturak eta helbide elektronikoa sartu behar dira. Sinatzaile herriko elkarte bateko kide izatekotan, elkartearen izena ere gehitu daiteke. Hala, ekimenaren azken helburua da gutxienez 5.000 atxikimendu edo sinadura lortzea.

NAFARROA OINEZ

2022KO URRIAREN 16AN TAFALLAN



Euskaltel
euskararekin

Euskaltel
Nafarroa Oinez-en babeslea



euskaltel

Parte hartzea eta euskara sustatzeko erronka itzela

M.A. | TAFALLA

Igande honetan Tafallan ospatuko den Nafarroa Oinez festa handiaren baitan erronka ikusgarria egingo dute Nafarroako ikastoletan DBH3 eta DBH 4 mailetan dauden ikasleen artean. Orotara, neska-mutikoz osatutako hamabi talde ariko dira lehia betean, eta proba bizi zein zirraragarriak egin beharko dituzte lehiakideek. Erronkako lehen lau sailkatuek, gainera, sari potoloak eskuratzeko aukera bikaina izango dute.

Azken hurren erronka 2019ko Nafarroa Oinez egunean izan zen eta egun hartan Tuterako Argia ikastolako ikasleak izan ziren garaile eta erronkaren lekukoaren jabe. Igandean, aurtengo saioari ekin baino lehen, antolakuntzako kideei itzuliko diete lekuko hori, eta saioa bukatzean irabazle berriak jaso eta gordeko du hurrengo ekitaldira arte, 2023 urteko erronkara arte, alegia.

Hainbat probaz osatutako lehiaketa izango da urriaren 16koa, eta Tafallara gerturatzen diren guztiek ikusi eta gozatu ahal izango dute. Horietako lehena, hala ere, "Joven In Bideo" proba, hain zuzen ere, orain egun batzuk egin zuten.



Proba bakoitzean parte hartzaileek euren indarra, abiadura eta abilezia erakutsi beharko dituzte, baita euren jakintza orokorra ere.

Gainerakoak gaur bertan egingo dituzte Nafarroa Oinez festaren ibilbidean zehar egongo diren lau guneean. Proba bakoitzean parte hartzaileek

BI KAPITAIN

Talde bakoitzak DBH 3ko hiru mutil eta hiru neska, eta DBH 4ko hiru mutil eta hiru neska izango ditu. Taldeak, gainera, bi kapitainen gidaritzapean ariko dira, eta azken hauek pisu handia izango dute probak gainditzeari dagokionean.

euren indarra, abiadura eta abilezia erakutsi beharko dituzte, baita euren jakintza orokorra, buruargitasuna eta euskaltzaleatasuna ere.

Balioetan hazi eta hezi

Esan beharra dago ekimen honen bidez antolatzaileek gazteen inplikazioa bultzatu, neska-mutikoen arteko harreman parekideak indartu eta ikasleen arteko euskararen erabilera sus-

tatu nahi dutela beste hainbat balioren artean.

Aurtengoan ondorengo ikastoletako ikasleak izango dira lehiakideak: Azken saioaren irabazle izan zen Iruñeko Argia ikastola, Iruñeko Jaso ikastola, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastola, Baztan ikastola, Altsasuko Iñigo Aritza ikastola, Zangoza ikastola eta Tafallako Garces de los Fayos ikastola bera.

Arestian aipatu legez, hamabi laguneko osaturiko taldeak lehiatuko dira. Talde bakoitzak DBH 3ko hiru mutil eta hiru neska, eta DBH 4ko hiru mutil eta hiru neska izango ditu. Taldeak, gainera, bi kapitainen gidaritzapean ariko dira, eta azken hauek pisu handia izango dute probak gainditzeari dagokionean. Kapitainetako bat ikastolako irakaslea izango da; bestea, aldiz, ikasleek eurek hautatutako pertsona bat.

Horrez gainera, erronkara aurkeztu den ikastola bakoitzak estandarte bat sortu behar izan du eta igande honetan bertan ikur hura eraman beharko du ibilbide guztian zehar eta gunetik gunera, ikusleek erraz identifikatu dezaten.

Azkenik, esan beharra dago talde partehartzaileek lehia estua izango dutela ziur igande honetan; izan ere asko daukate irabazteko. Erronkako lehen lau sailkatuek saria izango dute. Probaren irabazleak, hasteko, 700 euroko txekoa jasoko du; bigarren postuan sailkatzen denak, aldiz, 600 euro izango ditu; hirugarrenak, 400; eta laugarrenak, azkenik, 300 euro.

Ikastola bakoitzak erabakiko du nora bideratu saria. Hori dela eta, ikastola bakoitzak dituen beharrak aztertu eta ikasleen parte hartzearekin zertan erabili erabakiko du.

ITURRI

BEGANOAK ETA BARAZKIJALEAK. Ezein produktu ez da tratatu animalia -jatorriko inolako substantziarekin.

FRESKOAK ETA SASOIKOAK. Landa-eremuari sasoiari eusten laguntzen diogu, eta produktuen freskotasuna bermatzen dugu.

San Andrés Bidea, 35. Arroitx Nafarroa
t 948 537602 · 659 977814.
www.conservasiturri.es

LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132697 - Arga ibaia kalea 28-30 Iruña

Festa iraunkor baten aldeko dekalogoia

M.A. | IRUÑEA

Kezka eta ardura iturri da aspaldion Nafarroa Oinez gisako festa erraldoiek ingurumenean uzten duten aztarna ekologikoa. Horretaz jabetuta eta arazo horri irtenbide egokia emateko asmoz, Nafarroako ikastoletako festen arduradunek "Iraunkortasunaren Dekalogoia-Oinez Berdea" izeneko dekalogoia kaleratu dute. Modu horretan, gizartearekin eta ingurumenarekin errespetuz jokatzera animatu eta bultzatu nahi dituzte herritarrak eskaera zerrenda baten bitartez.

Hasteko, Tafallara bizikletan, garraio publikoan edota partekatutako autoan joateko eskatu dute antolatzaileek. Era berean, sortutako hondakin kopurua murrizteko bidean, edalontzi berrerabilgarriak etxetik ekartzeko galdegin dute, eta sare publikoko uraren kontsumoaren aldeko apustua ere egin dute. Horretarako, ibilbidean zehar edateko ur-guneak jarriko dira eta lehendik daudenak seinalez-tatuko dira.

Zaindu eta aurreztu

Energiaren krisiaren eta haren garestitzearen garaian gauden honetan, ura eta energia neurritz kontsumitzea ezinbestekotzat jotzen dute igandeko festaren antolatzaileek. Hala, zentzuz eta neurritz jokatzeko eskatu dute. Ez hori bakarrik, jaiaren ibilbidean zehar dauden animalia, landare eta abarrak errespetuz tratatzea ere galdegin dute. Natura eta ingurumenarekin soilik ez, norbere buruarekin eta inguruko herritarrekin arduraz jokatzearen garrantzia ere nabarmendu nahi izan dute; alegia, ondo pasatu, pasa gabe.

Oinez Basoak hazten jarraitzen du

Nafarroa Oinezek uzten duen aztarna ekologikoa (CO₂ isurketak batez ere) gutxitzeko asmoz, Oinez Basoa sortu zen 2008an. Tafallako Garces de los Fayos ikastolak ere bat egin du, noski, egitasmo honekin. Horrela, aurtan Cascarruejos aintziran hegaztien behatokia eraikiko da.

Tafallan 2011. urtean abiatu zen Oinez Basoa, Monte Planoko ekimenarekin. Bertan, Garces de los Fayos ikastolako ikasleek era aktiboan parte hartzen dute landaketaren mantentze lanetan. Zeregin horretan DBH 1. eta 3. mailetako ikasleek, lehenik, ezkurak biltzen dituzte, gero ikastolan bertan ernezeko. Ondo-

ren, DBHko 2. eta 4. mailetako ikasleek Oinez Basoan aurrera egin ez duten landareak ikastolan sortutako landareekin ordezkatzeko dituzte.

Modu horretan, naturari buruzko jakin-mina eta ardura pizten zaie gazteei, eta jasangarritasunaren inguruko kontzientzia lortzen dute.



Tafallako Monte Plano mendiko Oinez Basoa 2011. urtean abiatu zen. GARA



Siempre *cerca*

En Caja Rural de Navarra
estamos todavía más cerca
y seguimos siendo
los mismos de siempre

Es importante que sigamos
evolucionando juntos

Porque no hay que dejar de soñar

Beti *hurbil*

Nafarroako Rural Kutxan
are hurbilago gaudete eta
betiko berberak gara oraindik

Garrantzitsua da elkarrekin eboluzionatzen jarraitzea

Amesteari utzi behar ez zaiolako

www.cajaruraldenavarra.com



Euskara rekin, lehen hitzetik

1975. Lehenengo
produktuak euskaraz,
EROSKI marka.



NAFARROA OINEZ 2022
TAFALLA

Tafallako Garcés
de los Fayos Ikastola
Urriaren 16an
Tafallan



Hemengoa izatea
ona da

 **EROSKI**
zurekin